

KONTROL MOZIOA

2016 ETA 2017KO AURREKONTUEI DAGOZKIEN GENERO IKUSPEGIARI BURUZKO TXOSTENAK BERDINTASUN WEB ORRIAN PUBLIKATUTA EZ DAUDELA ETA

Naiara Sampedro Perezek EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri, mozio hau aurkezten du, Udalbatzan azter dadin. Mozioa 2017eko martxoko Pertsonen Zerbitzu Batzordean aztertutako interpelazioaren ondorioa da.

JUSTIFIKAZIOA

Donostiako Udalaren aurrekontuetan genero ikuspegia txertatzeko prozesua 2013an hasi zen. Horrek ez du esan nahi aurretik aurrekontuek ez zutenik batere genero ikuspeirik, edo prozesua hasi eta berehala erabat txertatua izango zutenik, baizik eta pixkanakako prozesua dela, non lehendabizi egindakoa ikustarazten den eta ondoren aurrerapausoak emateko proposamenak eta ekintzak gauzatzen diren, beti ere une bakoitzean indarrean dagoen Berdintasun Planari lotuta.

Aurrekontuak generoarekiko neutroak ez direneko ideiatik abiatzen gara: hau da, ez dietela era berean eragiten gizoni eta emakumeei eta hortaz, sexuaren arabera banatutako lanetan oinarrituriko gizarte antolakuntza indartu dezaketela. Horretarako metodologia propio bat proposatzen da, gizon eta emakumeengan eragin bereizgarria duten aurrekontu programak identifikatzeko. Finean, emakumeen eta gizonen errealitate ekonomiko eta sozialak desberdinak dira; horregatik aurrekontu publikoek modu ezberdinean eragiten diete.

Donostiako Berdintasun ataleko web orrian, 2014 eta 2015eko aurrekontu txostenak daude, baina 2016 eta 2017ko aurrekontuei dagozkien txostenak ez daude zintzilikatuta.

Horiek horrela, hauxe da behean sinatzen duen zinegotziak aurkeztutako

KONTROL MOZIOA:

EH Bildu talde politikoa
Grupo político EH Bildu

Ijentea, 1 - Tel. 943481027 - www.donostia.eus -
20003 Donostia

1.- Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari 2016 eta 2017ko aurrekontuei dagozkien genero ikuspegia jasotzen duten txostenak Berdintasunerako Bulegoko web orrian bi hizkuntzetan zintzilika ditzala, herritar guztion eskura egon daitezen.

Donostian, 2017ko martxoaren 24an



Naiara Sampedro Perez
EH Bilduko zinegotzia